

SAILEKO/ERAKUNDEKO ZERBITZUAK ETA JARDUNA:

SAILA/ERAKUNDEA: GAZTERIA SAILA

<p>1.- PLANAK ETA EPEAK: Indarrean daudenak</p>	
<p>PLANAK (izendatu eta lotura egin daiteke)</p>	<p>EPEAK</p>
<p>1- Enpleguaren sustapena: Gaztedi Busturialdearen barruan kokatuta dagoan 'Lana bilatzea, Lana da' programa sendotu eta indartu: gazteak etorkizunerako prestatuko dauzan garapen pertsonala dauka oinarri.</p> <p>2- LokaLeku: herriko gazteen topagune diran lokalen bizikidetza gidaren jarraipena egin eta dinamizatu.</p> <p>3- Adikzinoen eta menpekotasunen prebentzioa: arrisku faktoreak murriztu eta babes faktoreak indartu nerabe eta gazteen artean.</p> <p>4- Gazteei zuzendutako formazino eta aisialdiko ikastaroak antolatu eta zerbitzuak indartu.</p> <p>5- Gazteen parte hartzea sustatu eta bultzatu.</p> <p>6- Martxan dagozan gazteentzako zerbitzuak indartu eta daukien eragina identifikatu.</p> <p>7- Herri mailan gazteei bideratutako ekintza eta programa bereziak sustatu eta bultzatu (diru-laguntzen bidez).</p>	<p>1- 2017-2019 (Legealdia)</p> <p>2- 2017-2019 (Legealdia)</p> <p>3- 2017-2019 (Legealdia)</p> <p>4- 2017-2019 (Legealdia)</p> <p>5- 2017-2019 (Legealdia)</p> <p>6- 2017-2019 (Legealdia)</p> <p>7- 2017-2019 (Legealdia)</p>

bai diru-laguntzen bidez. Adibidez: Gorefest, Taelladie, Skate or Due jaialdia, Gazte Bazkariak, udalekuak, ikastaroak...

- Bermeoko gazteriaren parte hartze aktiboa sustatzeko tresnak. Adibidez: LokaLeku.
- Gazteei zuzendutako formazino ikastaroak: Aisialdiko Begirale eta Zuzendari ikastaroak, IT Txartelen ikastaroa, Jantokiko Begirale ikastaroa, Sorosle ikastaroa, Zeinu hizkuntza ikastaroa, Sukaldaritza ikastaroa, e.a.
- Eskualdeko gazteen enplegarritasuna eta ekintzailtza sustatzeko “Lana bilatzea Lana da” programa: Busturialdeko Enpresa Ideien Lehiaketa, Ekintzailtza Astea, ‘Gaztedi Busturialdea Bekak’, formakuntza ikastaroak, e.a.

